

**Mariñelarena
hasi da
entrenatzen**



Kirolak >> 11

**Gaurtik aurrera
iyoteak Etxarri
Aranatzen**



Gizartea >> 8

**Bilixkorrikoko
bardoak bertsotan
hasteko garaia**



Kultura >> 15

Parte-hartzeari bultzada

Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak boluntarioak behar ditu

Herrietan bete gabeko beharrak daude eta boluntarioei esker horiek ase daitezke

Adin txikiko, adindu eta zailtasunak dituzten pertsonekin aritzeko boluntarioak behar dira

>> 5



Energia eraginkortasuna lortzeko Irurtzongo Udalak hainbat farola itzali ditu. Itzalitako farolak zein diren jakinarazteko pegatina bana jarri die.

Energia aurrezteko neurriak Irurtzunen

>> 7

**Sakantzen
Sarea,
IV. Jardunaldi
Irekia**

>> 9

**Langabetuen
%46k ez dute
prestaziorik**

>> 6

**Irañetan
ur biltegia
berritzeko
laguntza zain**

>> 5

**Baikor, Lantegi
berria erronka
berritarako**

>> 9

**ALTSASUKO
KORAZONISTAK**

HAUR HEZKUNTZA

LEHEN HEZKUNTZA

BIGARREN HEZKUNTZA

H.H. eta L.H.ko izen-emateak
Otsailaren 20tik 26ra arte.

Tlf: 948562035

Jardunaldi jarraituak eta eskolaz kanpoko ekintzak. Murgiltze osoa euskaraz eta ingeleraz.



ZORION agurrak



ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.



Jarraitu
gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzaileak • Alumninioa-P.V.C-Mistoak

GURE
REMOVE
PLANA

%20^{ra}
arteko
deskontua

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Eneko

Etxeko futbolaria 8 urte!! ZORIONAK eta musu urte askotarako. Asko maite zaitugu.



Eneritz Fresneda Arza

ZORIONAK eta musu handi bat familia osoaren partez!!



Jone eta Uxue

ZORIONAK bikote!!!
Egun polita pasa ezazuela,
muxu pila famili guztiaren partez!!



ZORIONAK BIKOTE! Maialen, azkenean eguna iritsi da!!! Ondo pasa eguna. Muxu asko gurasoen eta Beñaten partes. Jon muxu asko.



Kimetz

ZORIONAK morrosko!! 5 urte bete behar dituzu, eta gizontxo bat eginda zaudel. Segi beti bezain alai, maitia. Asko maite zaitugu! Aita-txo, amaxo eta Ixone.

otsailak

14-20

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Gartxot. Otsailaren 15ean, larunbatean, afaldu ondoren Bakaikuko elkartearen. **Libre eguna.**

Antzerkia

Figurantes. Otsailaren 15ean, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Ados teatroa.**

Nina Calcetina. Otsailaren 16an, domekan, 17:00etan lortia kultur gunean. **La Ratona Teatroa.**

Magia

Arte de encantamiento. Otsailaren 15ean, larunbatean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Yunke magoa. 7 urtetik gora.**

Zinema

Hijos de la media noche. Otsailaren 14an, ostiralean, 21:45ean eta otsailaren 16an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Ismael. Otsailaren 14an, ostiralean, 22:00etan eta otsailaren 16an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Zipi Zape y el club de la canica. Otsailaren 16an, domekan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean.

Mendi irteera

Arangoiti. Otsailaren 16an, igandean. **Irurtzungo Iratxo mendi taldea.**

Mendaur. Otsailaren 16an, domekan. Altsasuko Mendigoizaleak.

Burunda ibaiaren iturburua, Araia. Otsailaren 16an, igandean 10:00etan Etxarriko ikastolatik. 4 km. **Sakanako ikastolen mendi taldea.**

Erakusketak

Oleos. Otsailaren 14ra Urdiaingo Kaluxa tabernan. **Patricia Paats.**

Orainetik iragana eta geroa eraikitzen. Otsailaren 16ra arte

Altsasuko lortia kultur gunean. **Helena Santano Cid.**

Gizarte parte hartzea. Otsailaren 17tik 23ra, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. Egutero bi boluntario taldearen aurkezpena. **Burunda mendebaldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak.**

Hitzaldiak

35/02ko sumarioko epaiketa. Otsailaren 14an, ostiralean, 19:00etan Bakaikuko elkartearen. **Hizlaria: Juan Kruz Aldasoro.**

Tortura, orbaindu gabeko zauriaren oihua. Otsailaren 14an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Hizlaria: Julen Arzuaga. Altsasu Memoria.**

Kataluniako eta Euskal Herriko bideak. Otsailaren 15ean, larunbatean, 18:00etan Etxarri Arazko kultur etxean. **Hizlariak: Hasier Arraiz (Sortu) eta David Fernandez (CUP).**

Zer dakizu Altsasuko inauteriaz? Otsailaren 15ean, larunbatean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. **Hizlariak: Iñobe batzordea.**

Gizarte parte hartzeaz. Otsailaren 17an, astelehenean, 18:30ean, lortia kultur gunean. **Hizlariak: hainbat taldeetako boluntarioak.**

Eskoziako Independentziara bidaia XXI. mendeko Europar liburuaren aurkezpena. Otsailaren 19, asteazkenean, 20:00etan Etxarri Aranazko liburutegian. **Hizlariak: Robin McAlpine, Xabier Solano eta Txente Rekondo. Independentistak sarea.**

Bestelakoak

Gizakunde. Otsailaren 14an, ostiralean, 19:00etatik aurrera Etxarri Aranatzan.

Sakantzen IV. jardunaldi irekia.



Hijos de la media noche filmearen irudi bat.

Otsailaren 15ean, larunbatean, 10:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunea.

Torturaren salaketa artistikoa. Otsailaren 16an, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

Lurralde eta ingurumen eskubideak. Otsailaren 20an, ostegunean, 19:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Euskal Herriko eskubide sozialen karta.**

Andrekunde. Otsailaren 20an, ostegunean, 19:00etatik aurrera Etxarri Aranatzan.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Otsailaren 14an, ostiralean, 20:00etan Irurtzungo, Lakuntzako,

Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Libre eguna. Otsailaren 15ean, larunbatean, Bakaikun.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Otsailaren 16an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Otsailaren 17an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

La luz nuestra oscuridad. Argi iluna. Otsailaren 18an, asteartean, 11:00etan Irurtzungo azokan. **Sasoia.**

Herri galdeketo araudia zehazteko batzarra. Otsailaren 20an, ostegunean, 20:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **A13 ekimena.**

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

beleixe ^{107.3 FM} *online*
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:
albisteak, kirolak,
Torturaren salaketa artistikoa,
Etxarriko rokodromoa...

Esataria: *Maiden*



Sakanako Herri - Eskolak

Iturri zaharreko ur berria

Altsasuko Zelandi IP



**Zelandi 18
31800 Altsasu**

Tfnoa.: 948 564 839 Faxe: 948 564 011
cpalsasu@educacion.navarra.es
centros.educacion.navarra.es/cpzelandi

Arbizuko Herri-Eskola



**Kale Nagusia 1
31839 Arbizu**

Tfnoa.: 948 460 763
cparbizu@educacion.navarra.es
www.arbizukoherrieskola.blogspot.com.es

Etxarri Aranazko San Donato Herri-Eskola



**Utzubar txiki z/g
31820 Etxarri Aranatz**

Tfnoa.: 948 567 003
cpetxarr@educacion.navarra.es
www.etxarrikoeskola.com

Irurtzango Atakondoa IP



**Ardubil z/g
31860 Irurtzun**

Tfnoa.: 948 500 228
cpirurtz@educacion.navarra.es
centros.educacion.navarra.es/atakondoa

Iturmendiko Arrano Beltza Herri-Eskola



**Elizalde 4
31810 Iturmendi**

Tfnoa. - Faxe: 948 563 414
cpiturme@educacion.navarra.es

Lakuntzako Herri-Eskola



**Abarrategi z/g
31830 Lakuntza**

Tfnoa.: 948 576 020
cplakunt@educacion.navarra.es
lakuntzakoeskola.educacion.navarra.es/

Olaztiko Herri-Eskola



**Nagusia 16
31809 Olazti**

Tfnoa.: 948 563 307
cpolazag@educacion.navarra.es
sites.google.com/a/educacion.navarra.es/olaztiko-eskola/

Uharte Arakilgo San Migel Herri-Eskola



**San Juan Olaza z/g
31840 Uharte Arakil**

Tfnoa.: 948 567 100
cpuuharte@educacion.navarra.es
sanmiguelikastetxea.blogspot.com.es/

Urdiaingo Herri-Eskola



**Elizazpi 4
31810 Urdiain**

Tfnoa. / Faxe: 948 468 345
cpurdiai@educacion.navarra.es

Matrikulazio epea: otsailaren 20tik 26ra

www.educacion.navarra.es · sakanakoherrieskolak@gmail.com



Xabier Reparaz Extramiana

Sarean harrapatuta

astekoa

barrutik kanpora

Aurrekoan baten batek zioen etorkizunean txip bat sartuko digutela larrazal azpian, kontrolpean mantentzen gaitzaten. Nik, ordea, erantzun nion badarama-gulajada gainean, doako mezuen truke eman ziguten multinazional boteretsu baten denda batean. Geolokalizatzaile potenteeek gure kokaleku zehatza ematen diete aldioro. Nahikoa aplikazio bat deskargatzea gure bizitzaren

ateak irekitzeko. Harritu egiten gara Estatu Batuen espioitza eskandaluekin, baina ez gara konturatzen gu geu garena informazioa zabalitzen dugunok. Argazki, bideo, pentsamendu, gustu edo etorkizunean egingo dugunaren berri ematen dugu etengabe, hau da, pribatutasuna zer den ere ahazten zaigu. Bat-batean ohartzen gara larritasunaz, gure egunerokotasuna

aldatzen denean, juergako argazki haiek baten batek deskargatu eta gure nagusiari bidaltzen dizkionean. Gure kokalekua salatzen duen mugikorrek gezurretan harrapatzen gaituenean. Guk esan ez genuena gure profilean argitaratzen dutenean, edota gure seme alabak sarean erasotuak direnean. Kontrol tresna bat da, gizartea kontrolatzeko helburuarekin egin.

Laster salduko dizkigute politikariek publizitatzen dituzten Google-en betaurreko apartak, ikusten duguna haiek ere ikus dezaten. Pauso bat harago gizartearen kontrolean, kaleetan dauden kamarak desagertuko dira, gu geu izanen baikara kontrolatzaileak. Irrifarre batekin, teknologiaren aurrerapenak ematen diguten entretenimendu apartaz pozten garen bitartean.

Otsailaren 4a, Minbiziaren Mundu Eguna

Pasa den otsailaren 4an Minbiziaren Mundu Eguna izan zen. Hainbat erakundek minbiziaren tratamendu integral baten aldeko apustua egiten dute, prebentzioa eta detekzio goiztiarra aintzat hartuko dituen. Ugariak dira minbizia agertzea ingurumenaren kutsadurarekin zuzenean lotzen dituzten txosten eta ikerketa mediku eta zientifikoak. Horien artean nabarmentzekoa da Madrileko Carlos III.a Unibertsitateak egindakoa. Ondorioztatzen dituen konklusioak ezin latzagoak dira: “Esan guratsuki ugaritzen dira minbizimota guztiak hondakinak erretzen dituzten planten inguruan”.

Minbiziaren zorigaitza serioa, ki hartu nahi bada kontzientzia-zio eta prebentzio kanpainak bultzatuz, ezin dira aldi berean minbizi mota guztiak hartzeko aukerak hainbeste ugaritzen dituzten eta gizakion osasunerako hain arriskutsuak diren jarduerak sustatu.

Kutsadura maila zorrotzak ezartzen direlako mitoa ere ezerezean geratu da, eta gaur egun frogatutaz ematen da gaixotasuna hartzen dela, nahiz eta hondakinen erraustetak sortutako kutsadura Europar Batasunak baimendutako mugen barne egon. Behin eta berriz errepikatu dugun zer bait da hau bestalde, kutsadurari jartzen zaizkion mugak ez direlako osasunari begira hartzen, eta bai ordea, jarduera ekonomikoa errentagarria izatea erdies-teko. Egun horretan Nafarroako Gobernuak eta bere ordezkariak bat egingen dute prebentzioaren alde egindako aldarriekin, baina aldi berean, Olaztiko Portland-en hondakinak erraustea babestu eta bultzatuko dute, gure etxe aurrean hondakinak errausteko Koplowitztarrekin sinatutako akordioan agerian utzi duten moduan. <http://olaztinerrausketarikez.bl.ogspot.com.es/>



3Mugak Batera

hara zer dien

Zenbat balio du etorkin baten bizitzak?

Teoriatik praktikara, mundu bat. Imajinariotik errealiter, gorkinkeria, krudeltasuna, egia bortitza. Giza Eskubideen Nazioarteko Ituna ustez den babesguneetik egunerokora, sakontasun zein itxura eta modu anitzeko tonaka zauri mingarri.... Han eta hemen. Urrun eta hurbil. Duela hilabete batzuk Lampedussan. Orain Lampedussan eta Ceutan. Batetik bestera mugitzea (oinarrizko premiak asetzeko edota

bizi baldintzak hobetzeko), giza-kion berezko ezaugarria dugu. Joera honek beti suposatzen du abentura bat. Batzuetan, ordea, gehiegitan beti ere, bakardadea, angustia, ezustea, gehiegikeria eta injustiziez beteriko enpresa bihurtzen da. Ceutako azken egunetan gertatutakoa, kasu. Nola da posible bizi berri baten bila abiatuta bizitza propioa jokoan jartzen duen GIZAKIA (ez dezagun ahaztu etorkina ere giza-kia dela; gizakia, pertsona, etorkina baino lehen gainera) tiroz hartzea? Edota “gurean” sar ez

dadin labanak jartzea? Norena da, ba, mundua? Edota lurralde bat? Ez al gara ohartzen bizi baldintzak hobetzeko premiak ez duela inongo muga, laban, tiro, pilota...erreprezio bide, lege injustuek geldiaraziko? Ahaztu al dugu jada, arazoa ez direla mugak, ezta migrazioa bera (nahiz eta ilegal deitu) baizik eta lurraldeen aberastasunen arteko lehia bera? Noraino irits daiteke izakiaren bihotzgabekeria? Gehiegikeria? Leo Messi, edota Cristiano

Ronaldori, gauza bera pasatu ote zitzaient estatutara sartu behar zutenen? Tiroka hartu ote zituzten inongo mugetan? Ez al gara ba denak berdinak? Zenbat balio du hortaz etorkin baten bizitzak? Edo, jatorriari begiratu behar diogu pertsona bat etorkintzat hartzeko? Haren bizitzari prezioa jartzeko? Edota maila ekonomikoaren arabera migratzaileak utzi egiten dio baldintza horri automatikoki? Ez ote gara ba denak migranteak (etorkinak) gure bizitzaren une batean edo bestean????? Migratzea giza eskubidea dela ahaztu gabe.... Guri migratzea tokatuz gero, ZER???????? **Bego Zestau, Immigrazio Zerbitzuak**

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

Katalunia eta Euskal Herria; estatu independente izateko bidean

Juan Kruz Aldasoro Jauregi

A13 talde herritarrek herri galdeketa antolatu du Etxarri Aranatzaren apirilaren 13rako. (...) talde honek gonbitea luzatu digu Etxarriko eragile guztiei bakoitzak egokien ikusten dugun moldean geure ekarpena egiteko herri osoaren parte-hartzearekin aberatseta mugarri izan nahi duen eztabaida honetan. Sortutik ere gure aletxoak jarri nahi

dugu (...) *Nahi al duzu Euskal Herri independente bateko herritarra izan?* (...) BAI, EZ, boza paper zuria edota boza paper baliogabea hautes-tontzietan sartzea dira eskura ditugun aukerak. (...) zer balioa du 2.500 biztanle besterik ez dituen udalerri bakar batean egingen dugun galdeketa? Arenys de Munten lehenengo galdeketa egin zenean alkatea zen Ximenis-ek eman zigunerantzuna (...): “*bidea irekitzea egokitu zaizue; jakin ezazue historiako orri garrantzitsu bat idatziko duzuela*”. Bete betean asmatu zuelakoan nago;

Euskal Herria era demokratikoan antolatzea nahi badugu, herri gisa erabakiak hartzeko tresnak eraiki beharko ditugu (...) Beraz, Sortutik egin nahi dugun lehenengo ekarpena eztabaida bultzatzearena da. (...) aukera bakoitzaren alde eta kontra dauden argudioak mahai gaineratzeko unea iritsi da. Argudioen trukaketa errazteko asmoarekin, mahai ingurua antolatu du Sortuk otsailaren 15ean, 18:00etan Etxarriko Kultur Etxean. Sortuko Hasier Arraiz eta CUPeko legebiltzarkidea den Dabid Fernandez egonen dira gurekin Katalunia zein Eus-

ZUZENKETA >>
Pasa den astean Sakanako birziklatzearen inguruan emandako albistean datu bat oker zegoen: Tuterako hondakindegira eramaten den hondakin kopurua jaitsi egin da. Joan den urtean 1.463 tona gutxiago eraman ziren (%22,62ko jaitziera).

kal Herrian egiten ari garen bideak alderatzeko. Elkarrengandik ikasi eta indarrak hartzeko aukera balia dezagun.

Osorik www.guaixe.net

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Erkuden Ruiz Barroso eta

Maialen Huarte Arano
ZUZENTZAILEA: Felix Alzelai
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:



SAGARDO GEGIRAKO BIDEAN: Arakilgo Udaleko Kultura Batzordearen eskaintza bere egin dute 16 pertsonak, eta larunbatean Ikaztegiako Begiristain tolarre sa-

gardotegira joanen dira. Majo afaldu ondoren Beasainen buelta emanen dute, 3:30ean etxera bueltatzeko.

sakanerria >>

>> Irañeta



Elkarterako bidean.

Udalak ur biltegia berritzeko prozedura hasi nahi du

Urteak dira Irañetako Udala Nafarroako Gobernuaren atean jo eta jo dabilela. Ur biltegia txikia eta zaharra da, eta berritzeko premia du. Lan hori diru-laguntzarik gabe ezin du egin eta horregatik jo du Irañetako Udalak Nafarroako Gobernura finantzazio bila. Aurreko urteetan beste lehentasun batzuk izan dituzte administrazioak eta lana egin gabe dago. Irañetako alkate Pedro Berazak esan digunez aurten ere ez da lan hori egingen. “Lan horren proiektua aurten egin nahi genuke, ur biltegia 2015ean berriro ahal izateko”. Hori dela eta, lanaren proiektuaren erredakzioak diru-laguntza eskatuko du aurten Irañetako Udalak (10.000 euro).

AURREKONTUA

Irañetako Udalak aurten 138.210 euro kudeatuko ditu, aurrekoan baino ia 14.000 euro gutxiago. Pasa den urtean ibaiak kalteetako harri lubetat bat konpondu behar izan zuten eta, horregatik, hilerriko sarrerako arrantza egin gabe gelditu zen. Aurten egingen du udalak lan hori. Bestalde, udalak aurretik egindako herri lanak ordaindu gabe ditu eta maileruak ordaintzera 30.000 bat euro bideratuko ditu.

>> Altsasu / Olatzagutia / ziordia

Gizarte arloko boluntarioak behar dira

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak egin du deialdia. Gainera, lanean ari diren boluntario taldeen lana erakusteko egitaraua antolatu du

Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak urtero herrira begira ekintzaren bat antolatzen du. Dagoen premia ikusita aurten boluntarioen gaia lantzea erabaki dute, “gure zerbitzuan behar konkretu batzuk aurrera ateratzeko laguntza beharra dagoelako”. Mankomunitateko teknikariek argi ikusten dute herrietan bete gabeko beharrek daudela eta boluntarioei esker horiek ase eta ideia eta proiektu berri asko aurrera atera daitezkeela. Horregatik, gizarte parte-hartzeari buruzko azalpenak programazioa prestatu dute, asteleheneetik aurrera garatuko dena.

Hitzaldia

Astelehenean, 18:30ean, Iortia kultur gunean gizarte parte hartze-

Antzerkia

Otsailaren 22an, larunbatean, 22:00etan, Iortia kultur gunean Pantxika Lamurren emanaldiarekin itxiko da gizarte boluntario izateari buruzko programazioa. Sarre- ra ordaintzeko jakia eraman beharko dira. Bestalde, kultur gunean bertan jakia biltzeko kutxak jarriak daude duela bi astetik edo. Han bildutakoa Nafarroako Elikagai Bankuak kudeatuko du.

ri buruzko hitzaldia izanen da. Hitz hartuko dute boluntario izatea sustatzeko CANek duen Volcan programako ordezkari batek eta hiru boluntarioek: adin txikikoei laguntza klaseak ematen dienak, adinduekin aritzen den batek eta Josefina Arregi klinikari aritzen denak. Egin beharrek, bete-beharrek, taldea nola sortu eta hainbat esperientzien berri emanen dute.

gertutik >>

Arantxa Erbiti

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

Zer da zehazki gizarte boluntarioa?

Bere denboraren zati bat ematen duena jarraian, eskuzabalta-sunez eta arduraz beste pertsonen aldeko edo gizarte osoaren aldeko jardueretan. Nork bere borondatez egiteko jarduerak boluntario izatea. Jarduera jarrai bat, elkarte edo erakunde baten baitan, doakoa eta arduraz egina.

Edozein izan daiteke boluntarioa?

Bere denbora jarduerak berezi batzuetara eskaini nahi duen edonork. Esan beharra dago ere boluntario izateak konpromisoa

eskatzen duela eta baita modu jarrai batean ematea ere.

Zein izanen da boluntarioen egitekoa?

Gure zerbitzutik argi dauden beharrek dira zailtasunak dituzten adin txikikoei laguntza klaseak ematea, hiru garren adineko edo zailtasun bereziak dituztenei mota ezberdineko laguntza eskaintzea (konpainia, paseoak, kudeaketa txikiak...) eta sor daitekeen edozein aukeraren arabera.

Hiru herrietan sortu nahi dituzte boluntario taldeak edo denak bakarrean batuko dituzte?

Hori ez da zehaztu, izena ematen duen jendearen kopuruarekin oso erlazionatua dago. Dauden baliabideak ikusita erabakiko da.

>>

Erakusketaz

Mankomunitateak Iortian jarritako erakusketa baten bidez dauden beharren berri emanen du eta boluntarioekin egin daitekeen lana erakutsiko dute. Aldi berean, gaur egun lanean dauden boluntario taldeetako ordezkariak hain jardueren berri emanen dute.

Burundarrak boluntario lanetan hastea nahi lukete, zerbitzuan edo lanean ari diren taldeetan. Erakusketan izena emateko aukera izanen da. Esan digutenez, horrela “gizarte aktiboagoa eraikitzen da; herri osasuntsuagoa sustatzen da; parte hartzeko aukerak eskaintzen dira



DYako boluntarioak elkarteak Sakanan 25 urte bete zituenean.

eta ditugun jakituria eta bizipenak partekatzeko modua da”. Erakusketa gaur egun lan egiten ari diren

boluntarioei eskerrak emateko ere badela esan digute mankomunitetik. Ziurtatu digutenez, “azale-

Taldeak txandak

>> Astelehena 17

Caritas-Elikagai bankua
Sakanako Ezgaituen Elkartea

>> Asteartea 18

Josefina Arregi klinikako lagunen elkarte
Ekuatoriarren Elkartea

>> Asteazkena 19

Hitzondo
DYA

>> Osteguna 20

Itxaropeneko jostunak

>> Ostirala 21

Bocalan Biak Bat
Denbora bankua

raziko ditugun baino boluntario talde gehiago dago lanean”.



Zelandi IP

Zelandi 18 • 31800 ALTSASU
T. 948 564 839

cpalsasu@educacion.navarra.es
<http://centros.educacion.navarra.es/cpzelandi>

2014-2015

Haur Hezkuntza (3-6 urte)
Lehen Hezkuntza (6-12 urte)

- A eta D ereduak
- Ingelera eta informatika Haur Hezkuntzatik
- Jangela zerbitzua




Aurreinskripzio epea:
otsailaren 20tik 26ra

SAKANA

Langabeziarako, ilbeltza

30 pertsona gehiago batu ziren lan bila daudenen zerrendara. Guztira 1.800 ziren ilbeltza akabera, duela urte bat baino 172 gutxiago

Bigarren hilabetez segidan langabezia igo egin da Sakanan. Abenduan eta ilbeltzean 103 izan dira enplegu bulegoan izena eman duten sakandarrak. Ibarrean Nafarroako langabetuen %3,39 dugu, herrialdearen populazioaren %3,22 garenean.

Generoari erreparatuta antzeko kopuruak badira ere, emakumezkoak dira lan bila dauden gehienak, 932 (%51,78, 60 gehiago). Gizonezko langabetuak ilbeltza akabera 868 ziren (%48,22, 30 gutxiago). Adinari dagokionez, lan bila ari ziren gehienak 25 eta 44 urte artean dituzte, 829 (%46,06, 20 gehiago). Enplegu bulegoan izena emanda dauden 45 urtetik gorako 803 sakandar zeuden urte akabera (%44,61, 12 gehiago). 25 urte baino gazteago diren 168 sakandar daude azkenik (%9,33, 2 gutxiago).

Sektoreei dagokionez, 1.006 langabedira zerbitzuetan lanegin nahi luketenak (%55,89, 43 gehiago). 523 langabeen (%29,06, 8 gutxiago) indus-

trian ariko lirateke. Eraikuntzan, berriz, 141 (%7,83, 1 gehiago). Lehen sektorerako 34 eskaera daude (%1,89,

2 gehiago). Azkenik, aurretik lanik egin ez eta lan bila dabiltzanak 96 dira (%5,33, 8 gutxiago).



Langileak teilatua berritzen. ARTXIBOA

Langabezia udalerrriak. Ilbeltza		
Udalerrria	Guztira	Aldea
Altsasu	870	6
Arakil	70	4
Arbizu	80	11
Arruazu	2	-1
Bakaiku	19	4
Ergoiena	9	1
Etxarri Aranatz	172	-2
Irañeta	11	1
Irurtzun	199	8
Iturmendi	22	0
Lakuntza	79	-3
Olatzagutia	139	3
Uharte Arakil	61	1
Urdiaín	33	-5
Ziordia	28	0
Guztira	1.800	30

Urte akabera prestazioak jasotzen zituztenen kopuruak Altsasuko bulegoan	
Ordaindutakoaren arabera prestazioa	502
Langabezia-sorospena	303
Gizarteratzeko errenta aktiboa	33
Guztira	838

Abendu akabera langabeen %53,9k jasotzen zuten prestazioren bat. 715 pertsonen (%46,03) ez zuten prestaziorik jasotzen. Horiei Iruñeko zabalguneko bulegora joaten diren arakildarrak eta irurtzundarrak gehitu behar ko litzaieke Sakanako datu zehatza izateko.

Altsasuko enplegu bulegoan 2013an egindako kontratuak							
	Sexua		1. sek	Industria	Sektorea		Daturik ez
	Gizon	Emakume			Eraikuntza	Zerbitzuak	
Mugagabeak							
Ohikoak	69	69	3	36	7	92	0
Bihurtzen dena	100	44	7	87	2	48	0
Aldizkako finkoa	0	3	0	0	0	3	0
Mugagabeak guztira	169	116	10	123	9	143	0
Epe jakinekoak	2.317	2.405	63	1.000	197	3.462	
Prestakuntzakoak							
Trebatzea	3	2	0	2	1	2	0
Praktikak	19	10	0	19	2	8	0
Prestakuntzak guztira	22	12	0	21	3	10	0
Guztira	2.508	2.533	73	1.144	209	3.615	0
Sexuka guztira: 5.041			Sektoreka guztira: 5.041				

MOTZEAN

Libre Eguna bihar Bakaikun

Espainiako Auzitegi Nazionalen lastailean abiatutako bi auzitan 76 euskal herritar epaitzen hasi ziren. Segiko kide izateagatik ETako kide izatea leporatzen dieten gazteen auzia otsaila hasierarekin batera des-peditu da. Baina ezker abertzaleko kideak eta herriko tabernen auziak aurrera jarraitzen du. Azken horretan Juan Kruz Aldasoro etxarriarra eta Jaione Intxaurrea urdiaindarrak daude. Madrilera joan etorriak ,egonaldia eta bestelako gastuak milioi bat eurokoak dira. Gastu hori arintzeko eta epaituei elkartasuna adierazteko hainbat herritan Libre Egunak antolatzen ari dira. Bakaikun bihar izanen da.

Egitaraua

>> Otsailak 14, ostirala 19:00etan 35/02ko sumarioko epaiketa. Juan Kruz Aldasoro.

>> Otsailak 15, larunbata 17:00etan Transformadorean txartela jarriko da. **19:00etan** Pintxoak elkartean herriko akordeoilariekin. Toka txapelketa. **20:30ean** Kontzentrazioa. Epaietarik ez! **21:30ean** Afaria*. Ondoren, kantaldia Gartxotekin.

*Txartelak 15 eurotan salgai. Baita 5 euroko laguntza-bonoak.

Gazteen kontrako epaiketa salatzeke protesta autobian

26/11 sumarioan 40 euskal gazteen aurkako epaiketa egin da Espainiako Auzitegi Nazionalen. Segiko kide izatea egotzita seina urteko kartzela zigorra eskatu zuen fiskalak. Auzia salatzeke ilbeltzaren 31n Iparraldeko Autobia (A-1) ordu batez moztu zuten, Murgilgo tuneletan. Zuntaipeko auzokideek jakinarazi digutenez, autobia, bi norabideetan, ordu batez itxita egon zen eta horretarako kateak, pankartak, ke poteak eta bengalak erabili zituzten.

Tortura azalera

Gaur, 19:00etan, Julen Arzuaga hizlari Altsasuko Iortia kultur gunean

Altsasu Memoriak gaur *Oso latza izan da: Tortura Euskal Herrian* liburuaren idazlea ekarriko du Altsasura. Esta-

tuen errepresio tresna horren erabileraren jatorria, nondik norakoa eta helburuak azalduko ditu. Altsasu Memoria taldeko kideen helburua da “gure historia jantzi eta osatzea. Gertaturikoa hamarkadetan isilarazia eta ahantzita gera ez dadin eta hurrengo belaunaldiak gure borroka zein konpromisoaz jabe daitezen, testigantzak, pasadizoak, datuak, materiala... biltzea”. Gaineratututenez, “torturaren aferra, erakitzeke dugun gertuko historiaren mugarrietako bat da”. Horregatik, altsasuarrei gonbitea luzatu diete bilketa lan horretan elkarlanean aritzeko.

Torturaren salaketa artistikoa

Igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean

Atzo izan zen Euskal Herriko torturaren aurkako eguna. Jardun hori salatzeke hainbat arlotako artistak bildu dira eta ikuskari bat prestatu dute. Antolatzaileek adierazi dutenez, “tortura eta biolentziarik gabeko herri batean bizi nahi dugu”. Igandean abeslariak, zirkua, arte plastikoak, dantzariak, eskalatazileak, musikariak eta beste izanen dira.

Espetxe politikaren kontrako salaketak

Aurreko astean hil zen Puerto de Santa Mariako (Cadiz) espetxean Arkaitz Bellon euskal preso politikoa. Hainbat gizarte eragilek Bello-n heriotzaren “erantzule zuzenak” sakabanaketa eta salbuespeneko espetxe politika direla esan dute. Haiekin bukatzeko garaia dela esan dute, eta euskal presoek egoera bidegabeak bizi dituztelako nabarmendu dute. Politika horiei eustea “zentsu-gabea eta onartezina” dela gaineratu dute. Salbuespen neurriekin bukatzeko kontzentrazioak egin ziren ostegunean eta ostiralean.

Stein gogoan

Ostiralean 30 urte bete ziren GALEk Angel Gurmindon, Stein, eta Bixente Perurena, Peru, hil zituela. Bi iheslari politikoak omentzeko ekitaldia antolatu zuten haien lagunek eta Ipar Euskal Herriko Sortuk larunbatean Hendaian. GALEk eta gerra zikinak eragindako samina oroitzeaz aparte, gatazkaren konponbiderako mezua zabaltu zen ekitaldian.



Arbizu
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16



PORTUKO okindegia

Ogiaren artisauak



Festetan ere eguneko ogia hemen!

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiaín: 948 563 763

>> Irurtzun

Energia-kontsumo eraginkorrerako neurriak hartu ditu udalak

Energia-ikuskaritza baten ondoren argiteria publikoan, eskolan eta udaletxean energia aurrezteko neurriak hartzen hasi da udala

Urtero energia-kontsumoagatik ordaintzen zutena gehiegi zela uste

zuten Irurtzungo Udalean. Gainera, arlo horretan aurretik ez zuten ezer egin. Horregatik, duela bi urte energia-ikuskaritza egiteko Acimut enpresa kontratatu zuen

udalak, energia kontsumo eragin-korragoa eta arduratsuagoa lortzeko asmoz. Irurtzungo Udalak 2.012an energiagatik 98.097 euro ordaintzen zituen, bestela esanda, urtean 412.991

kilo C02 isurtzearen parekoa. Energia aholkulariaren lanaren ondoren udalarendako kostu ekonomikoak gutxitzeko eta CO2 isuriak murriztuz ingurumena

babesteko asmoz, hainbat neurri hartzen hasi da Irurtzungo Udala. Esaterako, udal eraikinen kontsumoa aztertzea eta argiteria publikoko farolen %35 itzaltzea.

>>

Argiteria publikoa

2012an argiteria publikoagatik 25.450 euro ordaindu zituen udalak, 236.100 kWh-eko kontsumoagatik. Energia kontsumoa gutxitzeko honako neurriak hartu ditu udalak: fluxu murriztaileak jarriko ditu enpresa batek, farolak beharretara egokitu ditu, potentzia kontratuak berrikusi ditu, enpresa merkeena kontratatu du eta farolak itzali ditu.

Irurtzunen hainbat motako 433 farola daude eta haietatik 144 (%35)

itzali ditu, eta gutxienez 10.368 euro aurreztuko dituela aurreikusi du udalak. San Martin eta Lizarra kalea kenduta, gehienak auzoetan itzali dira; bat bai, batez. Argigehiegiedo gutxiago egon zitekeelako hartu du neurri hori udalak, herritarren beharrak kontuan izanda. Itzaliak faroletan pegatina bana jarri du udalak (farolak pegatinarik ez eta argirik ez badu, hondatuta dago). Hala ere, irurtzundarren bati toki-



Farolan, goian, itzalia dagoela adierazten duen pegatina.

ren batean argi gutxi dagoela iruditzen bazaio udaletxean (948 500 051 edo ayuntamiento@irurtzun.es) jakinaraztea nahikoa da.

Farolez

Hainbat motako farolak daude Irurtzunen eta batzuek eta besteek energia kontsumo ezberdina dute (170 eta 325 W artean). Farola tipoa urtean 3.400 ordu daude piztuta eta 600 eta 1.100 kWh arteko kontsumoa dute. Urteko farola tipo bakoitzeko 72 eta 132 euro artean ordaintzen ditu udalak.

>>

Udal eraikinak

Atakondoa eskola publikoan (41.182 euro urtean) dena itzalita dagoenean argi kontsumo txiki bat dagoela jabetu dira eta ordenagailu batzuen bateriak diren ikeritza-erakundeak, argiak eta tresnak itzaltzeko

kanpaina egiten ari dira ikastetxean, Txiki Iriarte alkateak jakinarazi digunez. Horrekin batera, udaletxeko galdara eraikineko espazioen beharretara eta ordutegietara egokitu dutela esan digu Iriartek: “Espazioak independi-

zatu dira. Orain Irurtzun eta Arakilgo udaletxeak, jubilatuen egoitza eta gizarte zerbitzuen mankomunitateko berogailua banatuta dago”. Horretarako eta berogailuetan konponketa batzuk egiteko 10.000 euro bideratu ditu udalak. Iriartek esan digunez, etorkizunean kiroldegiko eta udaletxeko galdarak aldatzea aztertzen ari

Udalaren energia kontsumoak	
Elektrizitatea	%46
Gasa	%41
Gasolioa	%13

dira. “Baina ezer erabaki aurretik Sakanako Mankomunitateak biomasarekin zer egin behar duen erabaki arte itxarongo dugu”. Orain arteko lanak udal langileek egin dituzte.

Udal eraikinen energia kostua (euro urteko)	
Eraikina	Kostua
Atakondoa ikastetxea	41.182
Udaletxea. Jubilatuek elkartea	14.749
Itxesia igerilekuak	7.105
Kultur etxea. Musika eskola	5.021
Gazte Txokoa eta liburutegia	2.212
Ludoteka	1.130
Kultur etxeko aretoa	940
Ura biltegira igotzea	134
Bi Haizpe biltegi-etxabea	120
Ardubil etxabea	56

>> Lakuntza



Plazako lanak hastear

Larunbatean moztu zituzten plaza-ko zuhaitzak. Haietako asko gaixo zeudelako eta obra egin ondoren haien zainek zorua jaso zezaketelako moztu dituzte. Lanak despedituta beste zuhaitz batzuk aldatu dituzte. Bestalde, aurki hasiko dira plaza berritzeko lanetan Tex Obras y Servicios SL enpresako langileak. Haien truke 240.732,81 euro (BEZ kanpo) jasoko ditu. Oinezkoendako egokিতutako plaza berritua festetan mustuko da.

948 460 162

Etxarri-Aranatz

948 46 73 08

Ferialleku 2 • ALTASU

Asteleheneetik ostiralera

Eguneko menua 8,25€

Asteburuetan

Menu berezia 25€

948 467 876 • Altasu

ZERGATIK UKO EGIN CITROËNEN ESPERIENTZIARI?

CITROËN LANAK

GARDENTASUNA, ZORROZTASUNA ETA FABRIKANTEAREN BERMEA

DISTRIBUZIO KIT-A

PSA TALDEKO (PEUGEOT-CITROËN) JATORRIZKO PIEZETAN **%30 EKO** DESKONTUA

ZURE IBILGAILUAK 5 URTE EDO GEHIAGOKO ANTZINATASUNA DAUKA? CITROËNEK ZURE IBILGAILUAREN ANTZINATASUNARI BEREZIKI EGOKITUTAKO ERAGIKETAK PROPOSATZEN DIZKIZU. INFORMAZIOA CITROËNEKO BANATZAILE OFIZIALARI ESKATU.

CITROËN nahilago du **TOTAL**

(*) Begiratu eskaintza baldintza orokorrak eta eskatu konpromizeunik gabe zure CITROËN autoarentzat aurrekontua. Indarrean dauden beste eskaintza batzuekin ez da bateragarria. Argazkia ez da kontratatzeko.

www.citroen.es

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. Citroën Kontzesionario Ofiziala. Iruñeko etorbidea z/g • ALTASU • 948 562 261 / Akabarro industrigunea • IRURTZUN • 948 600 657

>> **Etxarri Aranatz**

Galdeketa arautegia batzarrean zehaztuko da

Otsailaren 20an, ostegunean, 20:00etan Etxarriko kultur etxean

A13herriekimenak bigarren herri batzarra deitu du heldu den ostegunerako. Ekimenari izena ematen dion datarako independentziari buruzko herri galdeketa antolatzen ari dira eta sustatzaileek erabakiak herri batzarretan hartzea erabakizuten. Aurreneko batzarrean galdeketa azalpenak ematearekin batera, etxarriarrei luzatuko

zaien galdera erabaki zuten: *Nahi duzu Euskal Herri independente bateko herritarra izan?*

Osteguneko batzarrean, berriz, galdeketa prestatzeko arautegi orokorra adostu nahi da. Besteak beste, galdeketa parte hartzeko gutxieneko adina, aurretiko boto ematea... Batzarrera joaten diren guztien artean hartuko dira erabakiak, bozketarako boto sekretua erabiliz.



A13k etxarriarrek batzarrean parte hartzera gonbidatu ditu.

Eskoziara begira

A13herri-ekimenak iyoteetan eskoziarrez mozorrotzeko deialdia egin du. Hori dela eta, Etxarri Aranazko Udalak Etxarriarriaren parte hartzedinamikatik biekitaldi antolatu ditu, Eskoziaren berri emateko. Alde batetik, asteazkenean, 20:00etan, Independentistak Sare-

ak argitaratu duen Eskoziako Independentziara bidaia XXI. mendeko Europar liburuaren aurkezpena. Liburutegian hiru idazleak izanen dira: Robin McAlpine (eskoziarra), Xabier Solano (katalana) eta Txente Rekondo (euskalduna). Horrekin batera, udalak hilaren 23rako, Braveheart filmaren emanaldia iragarri du.

>>



Haurrak txatarraz jantzita.

Gaur hasiko dira iyotiek

Azterketengatik kintoek ostegunetako ospakizunak ostiralera pasatu dituzte

Gizakunde ospatuz hasiko dira gaur iyote ospakizunak Etxarri Aranatz. Txatarraz jantzita 24 kintoak etxetik etxera ariko dira eta jasotakoarekin afari ederra egingen dute. Hurrengo bi ostiraletan ere gauza bera egingen dute, Andrekunde eta Garikunden.

Eta berrikuntza horrekin batera, Etxarri Aranazko iyoteek beste bat dute aurtengatik. Garai batean iyotetako bigarren ostegunean emakume helduak mozorrotuta eskean ateratzen zirengero afaria egiteko. Gaur egun hainbat familia eta koadriletako emakumeak afaltzera biltzen dira. Udaleko Emakume Batzordeak Andrekunde eguna indartu eta etxarriarrei hurbildu asmoz herriko elkarteekin harremanetan jarri da. Haien

Iyote egutegia

Otsailak 14 Gizakunde.
Otsailak 20an Andrekunde.
Otsailak 21ean Andrekunde.
Otsailak 28, Garikunde.
Martxoak 2, Zalduiyote.
Martxoak 4, Astearteiyote.

laguntzarekin ostegunean elkar-
teiz elkarteko ibilbidea egingen da.

Deialdia

Etxarri Aranazko Udalak abenduan deialdia egin zuen herritar eta eragilean laguntzaz iyote parte-hartzaileagoak lortzeko. Hausnarketarako deialdiak ez zuen esperotako erantzuna izan. Hala ere, udalaren asmoa da heldu den urterako iyotei buruzko lanketa egitea eta herritarren ekarpenak kontuan izatea.

>> **MOTZEAN**

Inauteriak aurreratuta datoz Intxostiapuntan

Zer dakizu Altsasuko inauteriaz?

Galdera hori luzatu diete Intxostiapunta gazte gunetik gazte altsasuarrei. Inauteriei buruzko informazio gehiago emateko ihote Batzordeko bi kide joanen dira gaur gazte gunera. Ospakizunari buruzko informazioa emateko, gainera, ihoteko pertsonaia guztien mozorroak eramanen dituzte. Haien laguntzaz gazteei inauteriaren berri emanen diete. Gaur, 18:00etatik aurrera. Eta inauteria gai hartuta, heldu den asteburuan Intxostia puntan inauterietarako maskarak eta osagarriak egiteko tailerra antolatu dute. 22an eta 23an izanen da, 18:00etatik 20:00etara.

Kataluniako eta Euskal Herriko bideen ezkerreko ikuspegia

Hasier Arraizek (Sortu) eta David Fernandezek (CUP) hitzaldia emanen dute bihar, larunbata, 18:00etan Etxarriko kultur etxean

Arrazoi ezberdinengatik bai Katalunian bai Euskal Herrian garai bereziak bizi dira, "une historikotzat" definituak izan direnak. Euren herriak egiten ari diren bideaz gogoeta publikoa egingen dute bihar Arraizek eta Fernandezek. Fermin Munarri kazetariak gidatuko du saioa baina aretora biltzen direnak galderak egiteko aukera izanen dute. Eta antolatzaileek horretara gonbidatutako sakandarrak hitzaldira joan eta "ditugun gogoeta edo galderak konpartitzeko aprobetxatzea".

Lurkideen aurreneko batzarra

Deikaztelu eta Itsaso arteko goi tentsioko argindar linearen kontra konpromisoa azaldu duten 247 kide bilduko dira, Sakanako 71

Larunbatean, 11:00etan, Artikako kultur etxean Lurkideen aurreneko batzarra egingen da. Autopista Elektrikorik Ez! plataformaren kanpaina bati babesa eman dioten pertsonak eta erakundeak dira lurkideak, proiektuan aurreikusitako 247 argindar dorreen amabitxiak eta aitabitiak dira Lurkideak.

>> **Irañeta**

Ihote garaia hasi da

Irintarrek larunbatean zabaldu zuten Sakanako ihote egutegia. Gosari, bazkariak kalejirari eta Aitun Zarkoaren erretzeari utzi zioten bidea. Afari eder batekin despeditu zuten eguna.

Egin zaitez bazkide
www.guaixe.net

beleixeguaixe

sorgiñak
taberna

LAKUNTZA
948 576 357

GANUZA
SUKALDEAK

Sukalderako altzariak

Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Etxetresna elektrikoak

Tel: 948 460 203 Fax: 948 460 673
c.ganuza@cocinasganuza.com
www.cocinasganuza.com
Etxarriko industrialdea
ETXARRI ARANATZ

PPSOE,

ETB
digitala

Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

» Arbizu



Utzubar industrialdean eraikitzen ari da lantegi berria Baikor Worldwide.

Baikor Worldwide, lantegi berria erronka berriei erantzuteko

Gero eta pieza handiagoak egiten ari dira Arbizuko enpresan, eta egungo lantegia txiki gelditu zaie. Horregatik, Utzubar industrialdearen hirugarren faseko eremuan lantegi berria eraikitzen ari da enpresa. Baikor Worldwidedek lantegi berria egiteko 4,2 milioi euroko inbertsioa egin du.

Aitor Goñi arduradunak azaldu digunez, egun lantegian duten guztia berrira aldatuko da. Etorkizunean garatzen ari diren proiektuak lantegi berrian gauzatzeko aukera izanen dute. Horregatik, produktu ekoiztu eta merkatu berriak sortu bitartean, ez dute langile gehiago kontratatuko (27 ari dira egun).

Enpresaz

Arbizukolantegianaltzairuherdoilgaitzezko eta aleazio handiko zentrifugazio-osagaiak ekoizten dituzte. Elementu horiekin gero beste enpresek balbulak egiten dituzte. Batez ere petrokimika arlorakolan egiten dute Baikor Worldwide SL enpresan. Hala, Arbizun sortzen dituzten piezak petrolioa edo gasa dauden tokietan bukatzen dute. Euren merkatua Europan (Italia,

Finlandia eta Alemania), Amerikan (Kanada, AEB eta Brasil) eta Asian (Arabiar Emirerri Batuak) dago nagusiki (%80).

Aurreikuspenez galdetuta, Goñik azaldu digu sektorean krisia nabari dela, prezioetan batez ere. “Baina lana bada go”. Hainbat enpresa petrolioa eta gasa bilatzeko egiten ari diren lanak aipatu ditu. “Toki zailetan ari dira eta inbertsio handiak egiten ari dira. Petrolio txarra ateratzen ari bada ere, petrolioa garesti dago”.

Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza (IGB) zaintzen dute Baikor Worldwide SL enpresan. Proiektu berriak lantzen ari dira, eta, Goñik aitortu duenez, “horregatik daude bizirik. Betikoarekin gelditzen bazara jendea prezio onenera joko du”. Horregatik, produktu berriak eta merkatu berriak dira Arbizuko enpresak negozioari eusteko dituen bideak. Goñik arrazoitu duenez, “IGBn zenbat eta inbertsio gehiago egin negozio aukera handiago. Bestela, gero nabaritutokoda”. Horregatik, Industriako Garapen Teknologikorako Zentroarekin harremanetan dago Arbizuko lantegia.

MOTZEAN

Udal hautetsiek tokiko-maparen erreforman parte hartu nahi dute

Nafarroako Parlamentuan tokiko erakundeek mapa berregituratzeko lantaldea sortu dago. Egun indarrean dagoen toki erakundearen araudia 1990ekoak da, baina egokitu behar dagoela argi dute hainbat arlotan. Otsailaren 1ean Berriozarren hainbat udal hautetsi bildu ziren eta udal mapazehazterakoan parte hartzea sustatzeko eskatu zuten. Han ziren hainbat hautetsi sakandar. Eskaera hori ostiralean Parlamentuan bertan egin zuten baina UPNk PSNk eta PPK parte hartze prozesu berriak martxan jartzea eragotzi zuten. Orain arte esku artean duten egitasmoaren arabera Nafarroako

ipar-mendebalde guztia hartuko lukeen distrituan sartuko litzateke Sakana.

Medina izanen da Altsasuko bigarren zinegotzi sozialista

Udaletxean bi urte hutsik egon da PSNk lortutako bi aulkietako bat

Alderdi sozialistak otsaila akaberrako plenoan bere bi aulkia beteak ikusiko ditu. Izan ere, kredentziala iritsiz gero otsailaren 27ko udal bilkuran David Medinak kargua hartzea espero da. PSNk hauteskunde-etara Altsasun aurkeztutako zerrendako azkena da Medina. Aurretik zituenak uko egin diote kargua hartzeari. David Medina Sakanako UGTko arduraduna da eta Braulio Salvadorrekin batera beteko ditu sozialisten aulkia.

SAKANA

Sakantzen Sarea birpentsatzen

Ibarreko egungo egoera aldatzeko sortu zen tresna da Sakantzen Sarea eta bere egitekoan nondik jo zehazteko jardunaldi irekia antolatatu du

Larunbatean, 10:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean da hitzordua

Ibarreko jendarteak aktibatzen tresna bezala ikusten du bere burua Sakantzen Sareak. Jendea aktibatuz, pentsaera pasibo batetik proaktibo batera pasaz, Sakanan bizi dugun krisi egoerari aurre egiteko modua dagoela uste dute sareko kideak. Sakandarrak aktibatzen asmo horretarako Sakantzen Sareak, tresnak, zer nolakoa izan behar duen zehazteko IV. Lan Jardunaldi Irekiak antolatu ditu

biharko Altsasun.

Jon Ijurra esan digunez, “sarean ikuspuntu bat dugu. Baina kanpokoan ikuspuntua jaso nahi dugu”. Horregatik, sarea eraiki edo zerbait eraikitzailean parte hartu nahi duten sakandarrei biharko hitzorduan parte hartzeko gonbitea luzatu die Ijurra. Sakantzen Sareko kideak azaldu digunez, joan den urteko ibilbidearen errepasoa egingen dute bihar eta, horrekin batera, helburuak lortzeko erronkak zein izan daitezkeen ere zehaztuko da.

Ispilua

Sarearen moduko erakunde bat sortu da Zumarraga, Urretxu

eta Legazpi aldean. Sortzen ize-na duen lantalde horren funtzio-namendua eta irizpideak azalduko dituzte goierritarrek. Ijurra esan digunez, sakandarrek bihar egiten dituzten ekarpenen eta gipuzkoarren esperientziatik onena jaso eta sarearen orain arteko onenarekin osatu nahi luke bere etorkizuneko jarduna Sakantzen Sareak. “Sakanan tresna bat dugu, Sakantzen Sarea. Nola eta zergatik erabili zehaztuko dugu”, laburbildu du Ijurra. Biharkoak Sarearen etorkizuneko jarduna bideratuko du. Hiru egitasmoren berri emateko baliatuko du aukera sareak.

Eskola euskalduna eta publikoa

www.etxarrikoeskola.com

Aurrematrikula epea: **otsailaren 20tik 26ra**

Utzubar txiki z/g
31820 ETXARRI ARANATZ
T. 948 567 003 cpetxarr@educacion.navarra.es



GRUPO TANATORIO

IRACHE

TANATORIO TALDEA

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com

948 564 355

679 160 116


(24 ORDUZ)



Nerea Uribe-Etxebarria Flores

Zure hutsuneak utzi digu ezin esanaren mina minaren ezin esana.

Zure lehengusuak





Felipe Zeberio Maiza

I. urteurrena

Eskerrak eman nahi dizkizuegu urte honetan gure ondoan egon zareten guztiei.

Zure emaztea, Iker eta Andrea

Urdiain - Etxarri Aranatz



Oroigarriak



Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Higiezinak

LURSAILAK

SALGAI

Altsasun hiru lursail salgai. Bat Dermaun eta beste biak Ulaiar aldean. Interesatuak hots egin dezatela 948- 46 74 29 telefonora.

Galdutakoak / opatutakoak

OPATUTAKOAK

Txakurkume bat opatu da Altsasun. Ilbeltzaren 30ean. Hots egin 600- 41 15 62 telefonora.

Etxarriko Uholde Kortan graduatutako betaurreko ilunak opatu dira.

Deitu 630 47 47 86 telefonora.

Ikastaroak

AES. “Oinarrizko enpresa-ingelera”, Arbizun, 70 ordu; “Enpresa ingelera II”, Arbizun, 70 ordu; “Ingelera elkarrizketa praktikak”, Arbizun, 40 ordu; “Ekoizpena eta biltegien kudeaketa: denbora eta kostuen murrizketa”, Arbizun, 80 ordu; “Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua”, Altsasu, 60 ordu; “Adimen emozionala”, Arbizun, 30 ordu; “ETEei aplikatutako trebatasun pertsonalak”, Arbizun, 35 ordu; “EXCEL 2010: informazioaren kalkulua eta kudeaketarako baliabideak”, Altsasun, 40 ordu. Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com.

Cederna. Nafarroaren historia, turismo baliabidea, Arbizun, otsailak 12-19 eta 26, martxoak 5-12-19 eta 26, apirilak 2 eta 9; Nire zaletasuna nire lanpostu bihurtu, Altsasun, maiatzak 8-15-22 eta 29, ekainak 5; Zuzenean saltzeko estrategiak, Arbizun, urria/azaroa zehaztu gabe. Argibide gehiago: Oskia Lazkoz sakana.admon@cchederna.es – 948 56 70 10.

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>.

Forem Navarra – CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org.

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es.

Lehiaketak

Sahari kantari 2014. Saharar herriaren egoez sentsibilizatzea helburu duen kantu lehiaketa. Talde eta bakarlariek euren kantak martxoaren 28ra arte aurkeztu ditzakete. Informazioa www.saharaiakantari-2014.saharaelkartea.org.

ETBko lehiaketarako lehiakideak. Hizkamizka lehiaketarako lehiakideak behar dira. Kultura orokorreko galderei erantzun beharko diete. Interesatuak euren datuak eta kontakturako modua hizkamizka@eitb.com e-postara bidali beharko dute.

Oharra

Gitarra bat nahi nuke. Ikasle bat naiz eta gitarra bat nahi dut, baina etxekoek ezin dugu bat erosi. Erabiltzen ez dutuz gitarra bat baduzu niri ematea eskertuko nizuke. Harremanetarako hots egin Guaixera: 948- 56 42 75.

Etxarriko irakurle taldea. Martxoaren 13an, ostegunean, Andu Lertxundiren “Zoaz infernura laztana” liburua inguruan hitz egitera bilduko da.

Nafarroako herri komunikabide bat sortzeko diru bilketa. Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpenak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

Tartalarientako laguntza. Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrontean sartu daiteke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzin: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>.

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitzke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kan-

paina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Etxeko lantxoak – trukea. Informazio gehiago larrezabaldk@inigoaritz.com.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosfosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosfosefinaarreguilagunak@gmail.com.

Eskuratu zure beleixeguaix txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatrikulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkarte eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarritz edo hornitzaile desberdinei eskatzuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorrik. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, galletak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ospina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko

Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarrin jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigratio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraiei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatz, astearteetan Iruztunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigratzioa@sakana-mank.com posta elektronikoin.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen astearteetan, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaleetik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaitez Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, asteen behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzen du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

Iparraldeko Ikastolak laguntzeko. Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

Garraio laguntzarako diru bilketa. Sortzen

JAIOTZAK

- **Itsaso eta Nahia Berastegi Ray**, ilbeltzaren 31n Altsasun.
- **Unai Razkin Aranguren**, otsailaren 4an Arbizun.
- **Aratz Anda Ondarra**, otsailaren 5ean Altsasun.
- **Nagore Auza Barranco**, otsailaren 5ean Etxeberrin.
- **Julen Perez de Obanos Altuna**, otsailaren 5ean Iruztunen.

HERIOTZAK

- **Migel Angel Imaz Sanz**, otsailaren 3an Etxarri Aranatz.
- **Pilar Gamboa Razkin**, otsailaren 4an Etxarri Aranatz.
- **Petra Guillen Bakaikoa**, otsailaren 5ean Etxarri Aranatz.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

Ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduaren egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleek garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxan hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

Emakumeendako doako aholkularitza juridikoa. Senarrak ez dizula seme-alaben aldeko mantenu-pentsioa, tratatu txarrak sufritzin ari bazara, dirurik ez baina dibortziatu nahi duzula, izatezko bikotearen eta ezkontzearen aldeak... Emakumearen Bilgunea jo, Altsasuko Gure Etxean (948 564 823 edo berdintasuna@altsasu.net).

Ezgaituen Elkarteak bazkideak eta laguntzaileak behar ditu. Sakanako Ezgaituen Elkarteak bazkide kanpaina martxan jarri du. Horretarako 660 29 96 17 telefonora hots egin behar da. Bestalde, Sakanako ezgaituek aisia behar dute. Laguntzailea izan nahi baduzu deitu 649 189 249 (Eladia). Eskerrik asko Sakanako Ezgaituen Elkartetik.

TRINKETEA-PALETA GOMA

ARISTORENA-ZAMORAK IRABAZI: Nafarro-ako Trinkete Txapelketako 5. jardunaldian, emakumezkoen paleta goman, Aristorena

etxarriarrak eta Zamorak 30-16 irabazi zieten txapelketako buru Etxarriri eta Kontini. Asteburuan atsedena hartuko dute.

kirola >>

Futbola
FEDERATUTAKO TXAPELKETA
3. MAILA
24. JARDUNALDIA
CORELLANO 3 – LAGUN ARTEA 1 Partida oso lehiatua izan zen, baina lehen zatian oso aukera gutxi izan zituzten taldeek. 2. zatian Corellanok aurreratzea lortu zuen, baina Lagunek ez zuen etsi eta Arratibelek sekulako golarekin berdintzea lortu zuen. Tamalez, partida bukatzeaz zegoela eta minutu eskas bateko tartean Corellanok bi gol sartu zituen. Jaitsiera postuetatik 2 puntu eskasera dago Lagun Artea.
Sailkapena >>
1. San Juan 16. Lagun Artea 56 p 23 p
Asteburuko jardunaldia
LAGUN ARTEA – OBERENA (Larunbatean, 16:30ean, Lakuntzan)
ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa
19. JARDUNALDIA
LAGUN ARTEA B 1 – KIROL SPORT 2 DONEZTEBE 0 – ALTSASU 0 ARDOI 2 – ETXARRI ARANATZ 1 Lagun Artea B izan zen Kirol Sporten kontra penaltiz aurreratu zena. Nahiz eta bigarren zatian Lagun Artea B-k dominatu, Kirol Sportek berdindu zuen eta partida bukatzeaz zegoela bigarren gola sartu zuten. Donezteben, Altsasuk eta Doneztebek zuten guztia eman zuten, partida oso lehiatu eta ikusgarrian, kiroltasuna nagusi zela. Bi taldeak gogor saiatu ziren, baina biek defentsa sendoa zuten eta oso ongi presionatu zuten. Puntu banaketa justua izan zen. Bukatzeko, haizeak gogor jo zuen eta futbolean bukatzea oso zaila izan zen Zizurko El Pinarren. Atsedenaldirako Ardoi 2-0 aurreratu zen. Bigarren zatian lehia oso estua izan zen, eta nahiz eta Etxarriko Javierrek gola sartu, etxarriarrek ez zuten berdintzeko tarte gehiagorik izan.
Sailkapena >>
1. Lekunberriko Beti Kozkor 5. Lagun Artea B 8. Altsasu 15. Etxarri Aranatz 42 p 31 p 26 p 16 p
Asteburuko jardunaldia
BETI KOZKOR – LAGUN ARTEA B (Larunbatean, 15:30ean, Lekunberrin) ALTSASU – BAZTAN (Larunbatean, 16:00etan, Altsasun) ETXARRI ARANATZ – KIROL SPORT (Igandean, 16:00etan, Etxarri Aranatzen)

Futbola

SAKANAKO FUTBOL 8 TOPAKETAK

11. jardunaldia jokoan

Aurreko asteburuan Santa Ageda ospakizunengatik atsedenaldia hartu eta gero, igandean Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatutako kimuen mailako Sakanako Futbol 8 Topaketetako 11. jardunaldia jokatu da Altsasuko Dantzalekun.

11. jardunaldia

Igandean, Altsasuko Dantzalekun

11:30ean: Arbizu K.T. – Lagun Artea

11:30ean: Sayas – Urdiain

12:30ean: Txartel – Etxarri Aranatz

12:30ean: Kaixo – Tipi Tapa

Atsedena: Dantzaleku

Motoziklismoa

Alex Mariñelarenaren ordua

MUNDIALA PRESTATZEKO ENTRENAMENDUAK BURUTU DITU VALENCIAKO ZIRKUITUAN

Alex Mariñelarena (Tech3 taldea) pilotuari bukatu zaio atsedenaldia. Asteartetik ostegunera arte Motoziklismo Mundiala prestatzeko entrenamenduak egin ditu irurtzundarrak Valentziako Zirkuituan. Hurrengo astean Jerezeko zirkuituak hartuko ditu entrenamenduak. Mundiala martxoaren 23an hasiko da, Qatarren, eta ordu-rako Tech3 taldeak motorra puntuan izan nahi du.

Orain artekoa

21 orduko pilotua Espainiako Abiadura Txapelketan lehiatu zen iaz, Targobank Motorsport taldearekin. Mundialeko Moto 2 mailako 2 probatan parte hartu zuen bere taldearekin, gonbidatu moduan, Jerezen eta Alemanian. Bere egiteko bikaina ez zen ezkutuan geratu eta Blusens Avintia taldeak Dani Rivas pilotua Mundialean ordezkatzeko deituzion irurtzundarrari. Misanon, Aragoi –puntuatzea lortu zuen–, Malasian, Australian eta Japonian aritu zen, Rivas ordezkatzan. Nahiz eta Japoniako Sari Nagusian erriko serioa izan, maila bikaina eman zuen eta sari potoloa lortu zuen: 2014an Munduko Motoziklismo Txapelketan aritzea, Moto 2 mailan, Tech3 eskuderia frantziarrarekin.

Talde lanaren garaia

Entrenamenduak oso inportanteak dira, Mundiala hasita entrenatzeko tarte gutxi baitute pilotuek. “Orain egiten da talde lana eta motorra puntuan jartzeko lana, gero proba batetik bestera joatearekin nahikoa baitugu” azaldu du Alexek. Irurtzundarra denboraldia hasteko irrikitan dago. “Motor berria 2013koaren oso antzekoa da baina hainbat berrikuntza eta hobe-kuntza egin dizkiote motorrak zituen ahuldade puntuetan, bereziki atzealdean” adierazi du.

Erorikoari buelta emanez, behetik gora



Asteartean Mistral 610 2014 motor berria probatu zuen lehenengoz Mariñelarenak, baina ez zuen zortea alde izan, entrenamenduetako lehensaioan lurrera joan baitzen. Istripua gune azkar batean gertatu zen eta “motorra txikitu nuen” azaldu zigun irurtzundarrak. Zorionez, ez zuen minik hartu. Tech3ko mekanikariek lan itzela egin

zuten motorra hurrengo egunerako prest izateko. Motor guztia desmuntatu behar izan zuten, motorra hartu, txasis berria muntatu eta apurtutako pieza guztiak aldatu. Asteazkenean hiru entrenamendu saiotan aritu zen Alex. Lehen saioan motorra hautsi zuen, baina hurrengo saioetan behetik gora egin zuen. 1.37.516 izan zen bere denbora one-

na. “Motor berriari egokitzen nago, hobetze bideangaude oraindik. Tito Rabat azkarrenarengatik 2 segundo eta 3 ehunenekora gaude, distantzia nahiko handia. Lanean jarraitu eta ea aldea murrizterik dugun” adierazi zuen. Guaixe ixterakoanez genuen atzoko entrenamenduen emaitzarik jaso. Hurrengo astean Jerezen entrenatuko da Alex.

Helburuak

Lan asko egitea, lasterketa guztietan ahal duen guztia ematea eta gainontzeko pilotuetatik ahalik eta gertuen egotea. Horiek dira Mariñelarenaren helburuak. Puntuatzen duten postuetan sartzen ahalginduko da “baina hasieran ez ditugu helburu oso potoloak jarriko, bestela ondoak jota geratu gaitzke. Garrantzitsuena lana egitea da eta honek jarraipena izatea” nabarmendu du.

35 pilotuk hartuko dute parte Moto 2an. Nico Terol, Tito Rabat, Maveric Viñales, Roman Ramos... izango dira arerioetako batzuk. “Moto 2 oso txapelketa parekoa da. Motor guztiak antzekoak dira eta

pilotuen artean ez dago aparteko desberdintasunik. Lasterketa batean 10. postuan egon zaitezke eta hurrengoan 25. ean” azaldu du.

Tech3

Tech 3 eskuderia frantziarra da. Yamaha eskuderia ofizialeko talde satelitea da, hurbilekoa. Moto 2an Alex Mariñelarenak Danny Kent pilotua ordezkatzeko du eta Marcel Schrotter pilotua alemaniarra izango du taldekide. Moto GPn ere taldea du Tech3-k, eta 2013ko Moto 2ko txapeldun Pol Espargaró ariko da bertan.

Entrenamenduetan motorra puntuan jar dezala eta Mundiale-rako zorte onena opa diogu Alexi. Ikuskizuna hastera doa!

19 lasterketa

Motoziklismo Mundialak 19 proba izango ditu. Martxoaren 23an hasiko da Qatarren, eta azaroaren 9an despedituko da Valentzian. Espainiar Estatuan 4 proba jokatu dira: maiatzaren 4an Jerezen, ekainaren 15ean Montmelón, irailaren 21ean Aragoi eta azaroaren 9an Valentzian.

Futbola

Magna berriro lanera

AZKAR LUGO HARTUKO DU BIHAR IRUÑEAN

Eurokopa jokatu bitarteko atsedenaldia eta gero, lanera bueltatzeko ordua iritsi zaio Magna Xotari. Irurtzungo taldeak Azkar Lugo hartuko du larunbatean, 18:30ean, Iruñeko Anaitasuna pabilioian. Inter Movistar da ohorezko mailako liderra (49 puntu). Magna Xota 5.a da (28 puntu), eta Azkar Lugo, 11.a (16 puntu). Bi taldeek behar dituzte jokoan dauden 3 puntuak: Magnak, goiko postuei eusteko, eta Azkar Lugok beherantz ez egiteko.

Rafa Usin

Magna Nafarroa Xotako jokalaria Rafa Usinek Europako Areto Futbol Txapelketan parte hartu du, Espainiako selekzioarekin. Espainiaren helburua Eurokopa irabaztea zen, azken 4 urteetan bezala, baina ezinezkoa izan da, finalerdietan Rusiak 4-3 hartu baitzuen menpean. Eurokopa Italiak irabazi du. Brontzezko domina lortu du Espainiak, 3. eta 4. postuak zehazteko partidan Portugal 4-8 irabazi ondoren.



Futsal Sakanako 12. jardunaldia jokoan

Santa Ageda ospakizunengatik aurreko asteburuan ez zen Futsal Sakana areto futbol txapelketako jardunaldirik jokatu. Gaur, ostiralean, 12. jardunaldia dago jokoan Uharteko Arakilgo pilotalekuan. 20:00etan Biltokik Bunker izanen du arerio, 21:00etan Iturmendik Auzomotojorik, eta 22:00etan Arbizu Kirol Taldea eta Racing San Migel liderraren arteko partidaren txanda izango da. Etxarriko Gaztetxiek atsedena hartuko du.

Pilota

Gora eta behera

XALAK ETA ZUBIETAK GARAIPEN INPORTANTEA LORTU ZUTEN AIMARREN ETA ARETXABALETAREN KONTRA. ALDIZ, 3. PUNTUA LORTZEKO AUKERA EZ ZUTEN BALIATU EZKURDIAK ETA ZABALETAK, GRIPEAREN ERAGINA TARTEKO URRUTIKOETXEAREN ETA BEROIZEN KONTRA GALDU BAITZUTEN.

Saillkapena	
Olaizola II.a-Aretxabaleta	6 puntu
Irujo-Barriola	6 puntu
Titin-Merino	4 puntu
Xala-Zubieta	4 puntu
Urrutikoetxea-Beroiz	4 puntu
Berasaluze-Albisu	3 puntu
Bengoetxea-Zabala	3 puntu
Ezkurdia-Zabaleta	2 puntu

9. jardunaldia

Titin-Merino / Ezkurdia-Zabaleta (ostiralean, Bastidan. ETB1)
Bengoetxea-Zabala / Irujo-Barriola (larunbatean, Labriten)
Xala-Zubieta / Urrutikoetxea-Beroiz (larunbatean, Maulen)
Berasaluze-Albisu / Olaizola II.a-Aretxabaleta (igandean, Eibarko Astelenan. ETB1)

Batzuk hobetze bidean jartzen direnean besteek txahalaldia. Eta alderantziz. Hori gertatzen zaie Binakakoan ari diren sakandarrei. Xalak eta Zubietak azken jardunaldietan izandako krisiagainditu dute, euren jokoak berreskuratu eta garaipen polita lortu zuten Olaizolaren eta Aretxabaletaren kontra. Aldiz, gaizki hasi ziren txapelketan Ezkurdia eta Zabaleta, eta bi partida irabazi ondoren aurrera egiteko xendak zeudenean, 3. puntua lortzeko aukera alferrikeri galdu zuten, Urrutikoetxea eta Beroizen kontra galdu eta gero.

Presioa kentzera



Gaur Titin eta Merinoren kontra aritu beharko dute Ezkurdia eta Zabaleta Labastidan. Errioxarrek 4 puntu dituzte eta 2 sakandarrek. “Arrigorriagan ez nengoen %100ean, sukarrekin egon bainitzen. Gainera, hasieratik gaizki ateratzen ziren gauzak eta partida guztia atzetik aritu ginen. Gu kasik txapelketatik kanpo gaude, eta gure onena ematen saiatu behar dugu, ez dugu besterik. Irabaztera ateratu” adierazi zuen Zabaleta material akeraketan. Ezkurdia gaineratu zuen txapelketan daudela ahaztu eta ahalik eta hobekien jokatzera aterako direla, “orain arte horrela ateratu zaizkigulako gauzak hobekien”.
Partida gogorra espero dute
Bestalde, konfiantza berreskuratu eta gero, Ezkurdia eta Zabaleta irabazteko datozen Urrutikoetxea eta Beroizen kontra ariko dira Xala eta Zubieta larunbatean Maulen. Asteartean pilota aukeraketa egin zuten bi bikoek. “Frontoiarekin eta materialarekin ez dago inolako aitzakiarik” adierazi zuen Aitor Zubietak. “Larunbateko oso partida garrantzitsua da. Irabazten badugu, Urruti eta Beroiz alderatuko genituzke. Ogetan ia 1.000 pilotakada jo bagenituen, Maulen beste horrenbeste egin beharko dugu. Partida gogorra izango da” gaineratu zuen etxarriarrak, eskuengatik “bolada oso txarra” pasa duela onartu ondoren. “Jokoa berreskuratu dugu eta alde horretatik ongi sentitzen naiz, konfiantza hartu dugulako. Garaipenak binakakoaren borrokan sartu gaitu, baina lehen ez ginen horren txarrak ezta orain hautagaiak” azpimarratu du etxarriarrak. Oraindik eskuineko eskua ez du guztiz ondo, baina hobera egin du eta horrekin konformatu beharko da.

Zabaleta eta txahalaldia

Ezkurdia eta Zabaleta ez zuten aurreko bi asteburuetan emanda-

ko maila eman Arrigorriagan. Zabaleta gripea pasa zuen eta hori izugarri nabaritu zen, aurreko

Irurtzun indartsu

Espainiako Klub Arteko txapelketako 6. jardunaldian, ohorezko mailako A multzoan, eskuzko modalitatean, Irurtzun Oberenaren kontra aritu zen. Banakakoan Armendarizek 10-6 eta 10-0 irabaziz Oberenako Vidani, eta, binakakoan, Irurtzungo Ongay eta Mitxelena 10-9 eta 10-4 gailendu ziren Diazen eta Iturriagaren aurrean. Altsasuk atseden jardunaldia izan zuen.

asteburuan Aimarren kontra aritzen pilotariaren itzala ere ez baitzen izan. 22-14 galdu zuten sakandarrek Urrutikoetxea-Beroizen kontra, akats asko eginda.

Zubietak eta Xalak gora

Argiak ikusten arizela adieraziz gure Aitor Zubietak aurreko astean. Eta bete egin da iragarpena, Xalak eta Zubietak 22-20 hartu baitzituzten menpean Aimar Olaizola eta Aretxabaleta, partida lehiatu eta gogorreen. Zubietak, aspaldiko partez, eroso, seguru eta ongi aritzen, Aretxabaleta menpean hartuz, eta Xala ere bikain aritzen aurrean, Aimarrekin batera. Sufrituta, garaipen inportantea lortu zuten Xalak eta Zubietak, 4. puntua lortu eta finalerdietara sailkatzeko borrokan bete bete sartu baitira.

Taekwondoa



200 taekwondolari Altsasun

Nafarroako Kirol Jolasen taekwondoko lehen fasea jokatu zen

Altsasuko Zelandi kiroldegia Nafarroako Kirol Jolasen taekwondoko lehen fasea hartu zuen asteburuan. Kimuen, haurren, kadeteen eta juniorren kategoriako Nafarroako 17 klubetako kirolariak lehiatu ziren, 200 taekwondolari inguru. Guztiak parez pare aritu ziren. Poomsaen 50 kirolari aritu ziren, eta lehian edo “combate” delakoan 150 inguru.

BARGAGAINEN EMAITZAK

Altsasuko Bargagain klubak lan polita egin zuen. Junior mailako gizonen pisu astuna kategorian garaile izan zen, eta baita haurren mailako pisu arina kategorian ere.

Saskibaloia

SAKANAKO I. TOPAKETAK

8. jardunaldia Etxarrin

Igandean topaketetako 8. jardunaldia hartuko du Etxarri Aranazko San Donato eskolako kiroldegia.

8. jardunaldia

Igandean, Etxarrin

11:00etan: Balankaleku – Putterri
12:00etan: Martinsasti – Beriain

Atletismoa

Morenoren eta San Martinen kopa

ASTEAZKEN GAUEAN BURUTU ZEN SAKANAKO ATLETISMO KOPAKO SARI BANAKETA

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Lasa Kirolak dendaren babesarekin antolatutako Sakanako X. Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sariak baditu txapeldunak.

Aurten 4 probek puntuatzen zuten: Bakaiku-Iturmendiko X.

Aitzkozar Herri Krosak (maiatzak 25), Ergoienako X. Birak (irailak 21), Sakanako XIII. Herri Lasterketak (urriak 26) eta Altsasuko Barricarteren Oroimenezko Oinezko Lasterketak (abenduak 8). Gizonezkoetan Javier Moreno

altsasuarra izan da onena, Felix Benjumearen eta Juantxo Arregiren aurretik sailkatu eta gero. Eta, emakumezkoetan, Erkuden San Martin etxarriarra izan da finena, Jone Pelaezen eta Ixa San Martinen aurretik.

Kirol materiala eta egonaldia



Sari ematea asteazken gauetan egin zen Altsasuko Lasa Kirolak dendan. Irabazleek aipatu denden kirol materialean gastatzeko 80 euroko txartela jaso zuten, bigarrenek 60 eurokoa eta hirugarrenek 40 eurokoa. Sakanako Koparako baliagarriak ziren 4 probetan parte hartu zuten korrikalarien artean –Erkuden San Martin, Jone Pelaez, Ixa San Martin, Javier Moreno, Juantxo Arregi, Juantxo Azurmendi, Santi Agirre, Ismael Lopez de Goikoetxea, Aingeru Azazeta eta Felix Benjumea–, bi pertsonarendako gau bat eta gosaria zozketatu ziren Lizaragako Bentan. Javi Moreno izan zen onuraduna.

Mendia



Sakanako Ikastolen mendi taldeko aurreko irteera bat.

Burundaren iturburutik Araia ikastolekin

Sakanako Ikastolen mendi taldeak irteera polita antolatu du igandeko. Burunda ibaiko iturburutik Araia joatea da asmoa, 4 km-ko mendi ibilaldia eginez. Igandean, goizeko 10:00etan jarri dute hitzordua, Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolan. Ibilbidea oso polita da, eta antolatzaileek adierazi duteenez, mendiko botak behar dira ibilbidea egiteko eta ez da haur aulkitxoetarako ibilaldi egokia. Jakina, guraso bakoitza euren seme-alabez arduratu beharko da. Edozein batu daiteke ibilbidera.

Altsasuko eta Iratxo

Altsasuko Mendigoizaleek igandean txangoa antolatu dute. Mendaurren igotzea da asmoa. Aldiz, Irurtzungo Iratxokoek ibilbidea antolatu dute Arangoitin.

Andoain-Plazaola

Sakanako Mendizaleak taldeak hurrengo asteburuan, otsailaren 23an, Andoain-Plazaola mendi ibilbidea antolatu du. Autobusa goizeko 7:00etan aterako da Olaztitik. Izena ematea ohiko tokietan edo 639 11 7631 telefonora hots eginez.

Sakanako kintoak

www.guaixe.net
Kintoen argazki gehiago eta bideoak web-
gunean ikusgai.



Bakaikuko kintoak



Iturmendiko kintoak



Urdiaingo kintoak



Ziordiko kintoak

Non erabili

NUEVA IMAGEN

ALTSASU

%10eko deskontua edozein zerbitzutan, diruz ordainduz gero.

ARRUAZUKO OSTATUA

ARRUAZU

Asteburuko menuarekin, kafea edo txupittoa doan.

LOGURE

ALTSASU

Espazioaren aldaketa: % 50eko deskontua.

MARIA LUISA

ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan, 10€tako deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

NEREA ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

Garbitu, moztu eta apaindu 25 €.

MARTXUETA

IRURTZUN

% 5eko irakurketako liburutetan.

MENDILORE

BAKAIKU

30 €ko erosketarengatik, landarea doan, % 5ko deskontua lorontzietan.

LEKU ONA OSTATUA

ALTSASU

Egunekomenuan, kafea doan. Bestelako menuetan, %10eko deskontua.

**REDIN LURRINDEGIA
ETA KOSMETIKA**

ALTSASU

50 €ko erosketa batengatik Julene dendan erabiltzeko %10 deskontu balea.

**LIZARDI ESTETIKA
ZENTROA**

ETXARRI ARANATZ

50€ko gastuarekin, %10eko deskontu-balea.

**HOSTO GORRI
ALTZARIAK**

ETXARRI ARANATZ

Dendako produktuetan % 5eko deskontua.

www.guaixe.net-en
zerrenda osoa ikusgai

kultura >>

MAGIA IKUSKIZUNA: Larunbatean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean. Yunque magoak bihar Olatzagutira Arte de encantamiento ikuskizuna ekarriko du. Ma-

giako ilusio handiak eta txikiak erritmo bizi grinatsuan sorpresa, ezustek eta bestelako sentsazioak sentiaraziko ditu magoak. 7 urtetik gorako guztiendako ikuskizuna.

Tarima Beltza, muntaia berriaren azken entsegutan



Martxoaren 1ean estreinatuko du Tarima Beltza taldeak bere azken muntaia: *Nunca fuimos heroes*. Jon Barbarin zuzendariaren gidaritzapean astelehenero biltzen ari dira Mertxe Herrera, Juan Manuel Herrero, Marta Diego, Josu Castillo, Nata-

lia Martin eta Amaia Mintegi. Bakarriz sentitzen diren pertsonaiek osatzen dute obraren ardatza. Konpainia amateur altsasuarraren azken antzezlanak ikusi nahi duenak dagoeneko sarrerak eskuratu ditzake. Martxoaren 1ean bi saio izanen dira, 20:00etan eta 22:30ean.

Liburutegi publikoen gailu mugikorretarako aplikazioa

Nafarroako Gobernuak Liburutegi Zerbitzuak gailu mugikorretarako (telefono adimendunak eta tabletak) aplikazioa sortu du. Haren bidez Nafarroako Liburutegi Publikoetako zerbitzuak eta informazioa eskuratu daitezke (albisteak, jarduerak egutegia, irakurketaren sustapena, kokapena...). Android eta IOS plataformetarako garatua, aplikazioa ohiko tokitan eskuratu daiteke doan.

Horrekin batera, informazio aldizkari informatikoa jarri du martxan zerbitzuak. Informazio euskarri horrek sareko 93 liburutegi publikoen jardunaren berri ematen du. Horien artean daude Irurtzungoa, Etxarri Aranazkoa, Altsasukoa eta Olatzagutiakoa. Hileroko azken astean zabalduko da e-posta bidez. Izena ematea www.navarra.es atariko liburutegi publikoen atalean eman daiteke, gatzelaniaz.

Zinematik bizitza duinago batera



Helburu hori dute Figurantes antzeztaneko protagonistek. Lortuko ote dute? Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko lortia kultur gunean

Asier Hormaza eta Oskar Terol aktoreek Euskal Herri "sakoneko" herri batean bizi diren bi pertsonaren papera jokatu dute bihar Altsasun. "Berezko euskal zaporea" jaso nahi duen zinema ekoizpen bat iritsiko da herrira, bertako lasaitasuna nahasiz eta herria

eraldatuz. Gure bi gizonak extra izateko kontratatu dituzte, ospe tsu izateko edozer gauza egiteko prest baitaude, uste baitute hala bizi hobeagoa, duinagoa lortuko dutela. Hala, egoera barregarri eta eldarniozkoak sortuko dira.

Bi aktoreak 14 pertsonaiaren larruan sartuko dira eszenatokiari eta haien bidez hainbat egoeraren berri emanen dute. Bi pertsonaiak zinema bere egiten saiatuko dira, nahiz eta jakin aldi baterako besterik ez dituztela kontratatu. Euren ametsak gauzatu nahi balituzkete bestelako ahalegin txiki batekin lortuko luketela ohartzea falta zaie biei ere. Beraz, zinemaz baino duintasunaz eta jendearen ametsaz hitz egiten digun obra da *Figurantes*. Lanaren ardatza aktoreen egitekoa da. Eta erronka horri gogoz heldu diote Hormazak eta Terolek.

bazterretik

Jose Luis Asensio

Emakumeak trebe dira

Emma Rios Marvel argitaletxean lan egiten duen Espainiako lehenengo emakumea dugu, lehenengo eta baita bakarra ere oraingoz. Galiziarra bera, Vilagarcía de Arousa-n jaio zen 1976. urtean eta gero Ourense bizi.

Beti izan du komikiarekiko zaletasuna eta gazte-gazte izanda zenbait fanzinetan bere lantxoak argitaratzen zituen arkitektura ikasketak jorratzen zituen bitartean. Nahiz eta arkitektura ikasi eta baita arkitektura estudio batean lan egin, aldi berean bere lana eta komikiek

sariak jaso izan zituzten, besteak beste Madrilgo Expocomicazokan. Angoulemeko komiki topagunera ere fanzine batek gonbidatuta joan zen eta garai hartan, 2006-2007 urteetan, bere lanei buruz, Warren Ellis berak hitz egitea lortu zuen bere blogean.

Warren Ellis gidolariaren aipamenak Estatu Batuetako ateak zabaldu zizkion eta arkitektura lana uzteko aukera izan zuen buru-belarri komikigintzan aritzeko. 2008. urtean Matt Gagnon, Boom Studios-eko argitaratzaileak kontratua eskaini zion eta bere lehenengo lanak burutu zituen Estatu Batuetan, besteak beste "Hexed" edo eta

Marvel argitaletxeko "Dr Extraño" miniseriea.

Bere lanari buruz, hasieratik garbi geratu zen mangaren eragin ikaragarria zuela marrazteko moduan. Bere kabuz ikasi zituen marrazkigintzako teknika ezberdinak, nahiz eta arkitektura ikasketak ikaragarri lagungarri izan marrazkietan espazioa lantzeko orduan. Tramak eta itzalak lantzeko abilezia, bere marrazkiek beti izan dute aberastasun exotiko bat, non nahiz eta amerikar superheroien abenturen istorioak landu, ekialdeko marrazkien teknikaz baliatzen den batzuetan, nahasketa interesgarria lortuz.

Jendeari bere lanak gustatu zitzaizkion, eta iaz, hurrengo pausoa ematera ausartu zen: bere komiki propioa burutu. Kelly Sue DeConnick gidoia egin eta Emma Rios-ek irudiak eta paisaiak sortu ondoren, joandako neguan azkenean "Pretty Deadly" komikiaren lehenengo alea argitaratu zen. Arrakasta uste baino handiagoa lortu ondoren, hor dihardute beraiei komikiarekin aurrera eginez.

Pretty Deadly:

Western giroko komikiada, non protagonista, (emakumea eta mamua aldi berean) hiltzaile paregabea den. Sergio Leoneren giroa lortu nahian, western munduan murgil-

tzen da komikia, aldi berean Amerikako komikietan oso gustuko duten ukitu fantastikoa gehituta. Klaskoen influentzia ikaragarria du, besterik beste Japoniako samuraien zineman (azkenean, Japoniako samuraien eta EBBB-etako cowboyen artean paralelismo asko ikus daitezke).

Komiki hau Eisner sarietarako izendatu dezaketenaren zurrumurrua zabaldu da eta bihotz bihotzez munduko zorte onena opa diet bi emakumeei. Ea emakumeek ere komikia aberasteko, birziklatzeko eta berritzeko aukera duten betidanik gizonen mundua izan den mundu honetan.



DANBOLINTXULO
HAUR-LUDOTEKA

Aurrematrikula epea irekita

Izen-emate epea: otsailaren 17tik martxoaren 7ra

Ate irekien jardunaldia: Otsailak 24, 10:00-13:00

2014-2015
ikasturtea

Gure eskaintza

- 8 hilabete eta 2 urte bitartekoak.
- Irailetik uztailera.
- Ordutegia: 8:00-13:00
- Euskaraz.
- Jarduera anitzak: tailerrak, psikomotrizitatea, jolas librea...
- Talde txikiak.
- Hezitzaile arduratsuak.



Eskaera orriak hartzeko: Kale Nagusia 73 • Etxarri Aranatz (Musika Eskolaren ondoan)
<https://sites.google.com/site/danbolintxulo/> • danbolintxu@gmail.com

Arriren bigarren Goya

Jose Luis Arrizabalaga Agirrebengoak, Arrik, igandean bere ibilbideko bigarren Goya saria lortu zuen. Alex de la Igleziak zuzendutako *Las brujas de Zugarramurdi* filmean artezuzendaria izan zen Arri eta bere lana saritu zuten Zinema Akademiako kideek. Txikitatik Altsasun finkatua, Arrik 1996an *El día de la bestia* filmean egindako lanagatik bere aurreneko Goya saria lortu zuen.

Bestalde, hainbat sari jaso zituen David Truebaren *Vivir es fácil con los ojos cerrados* filmak, zinta eta zuzendari onenarena tartean. Film horretan zuzendari laguntzailea izan zen Sara Mazkiaran Zelaia altsasuarra. Mazkiaranek eskarmentu handia du zineman eta izen handiko makina bat zuzendariren laguntzaile izan da. Hainbat film labor ere zuzendu ditu.



Bilixkorrikoko bardoak txanda

Bardoak, Nafarroako talde-kako bertsoekimeneangaur hasiko du bere parte hartzea Bilixkorriko talde sakandarrak. Eneko Lazkoz, Oier Lakuntza, Alain Iriarte eta Unai Artieda bertsolariekin batera Maider Ansa aurkezleak eta Artzai Iraurgi ordezkariak osatzen duteldea. Parean Iruñeko Mirristi Drimtim taldea

izanen dute, Xabier Terreros, Unai Uberetagoena eta Asier Saragueta bertsolariek osatua. Gaur, 20:00etan, Iruñeko Zaldiko Maldiko elkartean izanen den bertso-merenduan neurtuko dira bi taldeak.

Sakandarren aurkariak aurreko asteburuan Malerreka-Baztan-go Etxeko Kontuk taldearekin neurtu ziren Zubietan.

Leitzako bardoak fin ibili ziren

Ostiralean jarri zen martxan Bardoak, Nafarroako talde-kako bertso ekimena. Eta lehen saioetako bat Sakanako Bizkorratxiko eta Leitzako Harrapazank taldeek Arbizun jokatu koa izan zen. Argi Bidea elkarte 90 bertsozalek bete egin zuten. Baina bertsolariak lanean entzun aurretik Erik musikari arbizuarren doinuak izan ziren giroa berotu zutenak.

Bertso jardunari dagokionez, ordezkaria Jon Arratibelek aurkeztu zuen saioa. Josema Leitzza,

Joseba Beltza, Saats Karasatorre sakandarrak eta Migel Mari Elo-segi "Luze", Iñigo Ibarra, Joanes Illarregi leitzarrak aritu ziren bertsoetan. Azken hori 15 urterekin bikain moldatu zen. Guztien artean saio bizia eta umoretsua eskaini zuten, baina puntua, merezita, Leitzara joan zen.

Sakandarrek asteburu honetan atseden hartuko dute. Hurrengo hitzordua otsailaren 23an izanen dute, igandean, 19:00etan. Igandez Miluzeko barañetak taldearen kontra neurtuko dira. Taldea



Ander Baianok, Ander Perezek, Mintxo Astizek, Pablo Perezek, Edurne Erreak eta Iker Mundiñak osatzen dute.

Bestalde, Txantreako 12 obario eta 11 pedrada taldean dagoen Hai-

zea Beruete bertsolari lakuntzar-sakandarrak ez zuen etxeko saioan parte hartu. Hala ere, bere taldeak puntua eskuratu zuen. Otsailaren 21era arte ez dira berriro lehiaketan ariko.

Ikastola, dena bat dator



txioka.haur.ikastola@inigoaritz.com
948 37 30 23
ALTSASU



IÑIGO ARITZA IKASTOLA
ikastola@inigoaritz.com
948 56 29 51
ALTSASU



etxarri@ikastola.net
948 46 02 86
ETXARRI ARANATZ

asteko >> : eguraldia

ostirala

larunbata

igandea

astelehena

asteartea

asteazkena

osteguna

euria: 30%

euria: 40%

euria: 30%

euria: 40%

euria: 80%

euria: 80%

euria: 40%

Min: 6 Max: 16

Min: 7 Max: 10

Min: 2 Max: 8

Min: 2 Max: 8

Min: 3 Max: 7

Min: 3 Max: 8

Min: 2 Max: 9

: temperatura>>

Max. °C

Min. °C

euria l/m²

Irurtzun

Etbarri A.

Altsasu

Aralar

Urbasa

14.3

14

7.2

10

-1.6

-0.5

-4.8

-6

70.6

59.5

30.5

51.4

: ilargiaren aldia>>

ilbete

ilbehera

ilberri

ilgora

14

22

1

8



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253

Arkinoturri Industrialdea • Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 • Iruñea



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE



Otsaileko bazkide zozketa



OTSAILEKO SARIAK:
1. EKAINBERRI KOBAZULOTARAKO 2 SARRERA,
GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETKO
HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGUR-
TAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA
2. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETKO
HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGUR-
TAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA
3. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETKO
HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGUR-
TAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA
4. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETKO
HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGUR-
TAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA



OTSAILEKO SARIAK:
1. EKAINBERRI KOBAZULOTARAKO 2 SARRERA,
GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETKO
HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGUR-
TAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA
2. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETKO
HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGUR-
TAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA
3. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETKO
HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGUR-
TAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA
4. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETKO
HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGUR-
TAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA

>> 11 galdera

Fidel Jimenez eta Andoni Unanua
Etxarriko rokodromoa
Testua: Eneida Carreño eta Mainer Betelu

taldetxo bat eta pentsatu genuen: zergatik ez Etxarri rokodromoa egin? Orduan, mugitzen hasi ginen. Udaletxera jo genuen eta aukeraren bat zegoen galdetzeko, eta idatzi bat aurkeztu genuen, rokodromoa egin ahal izateko lokal bat eskatuz. Udaren harrera oso ona izan zen, rokodromoaren beharra ere ikusi zuten. Lokala utzi ziguten, dirulaguntza eman digute eta oso ongi portatu dira. Duela urte bat hasi ginen kontua mugitzen.

6. Nortzuk zarete bultzatzaileak?
Lanak egiten dozena erdi bat aritu gara, baina jende askok ere ez zekien zertan genbiltzan. Orain 20ren bat etxarriar biltzen gara; mugimendua badago.

7. Nola prestatzen da rokodromo bat?
Finean egitura bat dago atzean, eta egiturako angelu horietatik egurrezko taulak jarri behar dira gainean, inklinazioa emanez. Taula horiek taladratu egin behar dira. Lan dezente du horrek. Eta taulen gainean presak jarri behar dira. Babesteko, lurrean koltxoak jarri behar dira. Guk egin dugu lan guztia. Materiala erosi genuenetik 3 hilabete eman ditugu muntatzen.

8. Rokodromo bat muntatzeak aurrekontu handia eskatzen du? Eta mantentze lanek?
Hasieran diru nahikoa jarri behar da, materiala garestia delako: presak garestiak dira, taula ugari behar dira, angeluak... Hasieran inbertsioa egin behar da, baina gero, urte askotan ez da gehiago gastatu beharrik. Mantenuan guztia ongi garbitzearekin eta tarte-ka presaren bat aldatzearekin nahikoa da. Urtean kuotatxo bat

jartzearekin, urtean barna kontrol bat eramateko nahikoa.

9. Zertarako balio du rokodromo batek?
Eguraldi txarra egiten duenean edo gaua denean eskaladan entrenatzeko, gero malkorretara joan ahal izateko. Korrika egiten duenak entrenatzeko korrika egiteko zinta erabiltzen duen bezala, eguraldiak ez duenean laguntzen, eskalada praktikatzeko aukera ematen dizu rokodromoak. Eta baita ongi pasatzeko aukera ere, giro polita sortzen baita. Lauzpa-bost lagun entrenatzera elkartuta, ongi pasatzen duzu.

10. Ikastaroak antolatuko dituzue?
Lehendabizi rokodromoaren promozioa egingo dugu, eta ikastaroak egiteko asmoa ere badugu, jendea erakartzeko. Neskak ere gonbidatuak daude. Gehiagokostatzen zaie hurbiltzea, gehienak mutilak gara. Oraindik ez dugu rokodromo %100ean martxan; orduan mugituko dugu dena. Asmoa da rokodromo herriko jendeari zabaltzea, ikastetxeekin ere egon nahiko genuke, haurrendako soinketa orduan pixkaterabilinahi badute. Rokodromo zabalik dago mundu guztia.

11. Zuekin harremanetan jartzeko zer egin behar da?
Bertatik pasatu, beti dago norbait, eta gutako edonorekin hitz egin. Sar dadila nahi duena inolako lotsarik gabe. Oraindik ez dago erabat muntatuta. Koltxo gehiago jarri nahi ditugu, segurtasun aldetik hobetzeko, eta presa gehiago jarri nahi ditugu, jende hasiberriari errazteko, rokodromoaren denon eskura egoteko.

IRRATI-KUÑAK
IRAGARKIAK
BANNERRAK
KARTELAK
ESKUORRIAK

2014 MATRIKULAZIO KANPAINA



Guaixe KOMUNIKAZIOA
diseinua & inprimatzea